

## IRAGARKIAK

### Beste iragarki ofizial batzuk

#### INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

## 808

*IRAGARKIA, 2026ko otsailaren 13koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Gipuzkoako lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira Hernani (Gipuzkoa) udalerriko «Ikatz Gane parke eolikoa» proiektuari eta haren ebakuazio-azpiegitura erkideei aurretiazko administrazio-baimena emateko eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena egiteko eskariak.*

115/2002 Dekretuaren 7. artikuluan (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikitik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena) eta 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan (24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektrikoari buruzkoa) ezarritako ondorioetarako, eta bat etorri Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin, jendaurrean jartzen dira Ikatz Gane parke eolikoari eta hari lotutako azpiegiturei buruzko proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Espedientea: 20-GE-Y-2024-00006.

«Ikatz Gane parke eolikoa» honetan datza:

- Parke eolikoa, 4,99 MW-ko 5 aerosorgailuz osatua, hau da, guztira 24,95 MW-ko potentzia instalatua. Aerosorgailuen dorreek 112 metroko altuera daukate, eta errotoreak 175 metroko diametroa. Honako parke eoliko hauek osatzen dute: «PE Arbequina 1», «PE Paloma 3», «PE Graceland 3», «PE Justa 2» eta «PE Los Pistoleros 2». Parkea Hernaniko udalerrian kokatuko da (Gipuzkoa).

- 30 kV-ko sekzionamendu-zentroa, Hernani udalerrian (Gipuzkoa) egongo dena.

- Aireko eta lurpeko 30 kV-ko linea elektrikoa, sekzionamendu-zentroa eta ST Hernani 1 T2 30.000 azpiestazioa lotuko dituena; horren luzera 7,425 km-koa izango da. Hernani udalerriko lursailetatik pasatuko da (Gipuzkoa). 1. tarte: 0,1 km-ko luzerakoa, lurpekoa. 2. tarte: 6,139 km-ko luzerakoa, airekoa. 3. tarte: 1,185 km-ko luzerakoa, lurpekoa.

- Xedea: energia elektrikoa sortzea lehorreko teknologia eoliko berriztagarriaren bidez.

- Eskatzailea: Enigma Green Power 26, S.L.U.

- Titularrak eta sustatzaileak:

- «PE Arbequina 1», Enigma Green Power 21, S.L.U.

- «PE Paloma 3», Enigma Green Power 23, S.L.U.

- «PE Graceland 3», Enigma Green Power 26, S.L.U.

- «PE Justa 2», Enigma Green Power 22, S.L.U.

- «PE Los Pistoleros 2», Enigma Green Power 28, S.L.U.

- Eskariaren xedea: aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.
- Eraginpeko udal-mugartea: Hernani (Gipuzkoa).
- Banaketa-sarera bideratzeko puntua: «ST Hernani 1 T2 30.000» azpiestazioa, i-DE Redes Eléctricas Inteligentes S.A.U.-ren jabetzakoa.
- Parke eolikoaren eta ebakuazio-linearen aurrekontua: 40.726.226,57 euro.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak eman behar dio proiektu honi aurretiazko administrazio-baimena. Jendaurrean erakusteko izapidea bete behar du baimen horrek, ordea, eta, aldi berean, ingurumen-inpaktuaren azterketa ere jendaurrean jarri behar da, horrela ezartzen baita Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan.

Hori guztia argitaratzen da, interesdunek eta, oro har, herritarrek dokumentazioa azter dezaten Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan (Easo kalea 10, 20006 Donostia) edo Interneteko webgunean: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira idatzizko euskarri fisikoan edo EAeko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoro korra bidez (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutako moduan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik 30 egun balioduneko epean.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidezko harremana izatera, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, aipatutakoek jendaurrean jartzeko izapide honetan egindako alegazioak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira.

Donostia, 2026ko otsailaren 13a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Gipuzkoako lurralde ordezkaria,  
ANTTON ARRIETA INSAUSTI.